

Antonio Oregi Oregi Zabale

*Soraluze
Gipuzkoa (1926)*

Aurkibidea

Biografia



Zabale baserrian jaioa 1926an. Baserriko lanak eta ingurua oso ongi ezagutzen ditu. Fruta-arboladi handia daukate baserri inguruan eta etxeetara saltzen dituzte barazkiak. Hiztun ona da eta lehenagoko bizimoduaz gain, etnografi gaietaz ere azalpen zehatzak ematen ditu.

Zintak

SOR-022

• **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Data**: 2002-07-02
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

SOR-023

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Data**: 2002-07-02
- **Iraupena**: 32 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

Pasarteak

1. Baserriko bizimodua

- **Erref**: SOR-022/005
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:13:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Lan-plangintza. Uda garaian, belar-ondoa. Armozua. Gerezi klaseak.</p>

Transkripzioa

- Ta, gero, ostiango lanak, ba, ze esango dotsut, ba? Ostian hamengo basarrixa gehixen be eruan dot nik... Hor esango neuke pixkat buruakin jokatu dotela. Esango neuke, naon moduan egoteko. Zeaittik ez... Ni goizeko bostetan udako prisako zerian [zaonian] bedarrondua ta horrek historixok, goizeko bostetan jaikitzeiko kostunbria. Bostak-bost ta erdiak. Hortxe, pixkat gehitxuao [...], baiña txorixekin batera, segia hartu bizkarrian ta banekazen hogeta hamar biaje edo nekazenak, edo berrogei, zarenak, banekixan goizian goizao jaiki ta amaittu artian nekatu barik eitten dozu biharra goizeko freskuran. Ze, zortziretan segia hartuta bedarra ebatera jua edo goizeko bost eta erdietan jua txorixekin batera, fresko-fresko alde haundixa dao, e? Onbre! Ta nik zortziretarako, ba, einda eukitzen naben nere tareia. Gero etxera etortzen nitzan ta lehelengo amak eta gero andriak, ba, nekan kostunbria, berakatz-zopa, berakatz-zopa hori sikuori, basarrikua, lehen eitten zana arrautza bat edo bikin, nahastau ta botilla erdi bat ardau eran geiñian. Ta geratzen nitzan "Pepe" moduan. Gero, ba, hartu...Armozau ta horrek eitten nittuanian, ba, bedarrak ebaittakua zabaldu ein bihar zian, ba? Harek zabaltzera-ta juaten nitzan ta gero txaran, oin autopistian terrenuak kendu dittuen lekuan, keixa pillia zeuan. Arbola huandixak keixak. Baiña nik be ixo eitten naben, sasoia nekan ta. Ta keixa edarrak jan ta... osasuna, e? Osasuna da hori, e! Goizian goizao jaiki, armozau, gero bedarrak zertu ta gero keixa edarrak jan. Ta gero asko egoten zan hor ta, kaleko jentia etortzen zian keixak jatera. Bai, ta aittak esaten otsen: "Keixak jan, amaittu artian, baiña gero sagarrak eta beste frutak datozenian, harek errespetau, e? Harek ez." Ta hola

errespetau be bai, e! Hamen kaletarrak, egunak egongo zian hogeia lagun-ta ibiltzen zianak keixa jaten, [ze] arbola pillia [bat] zeuan ta keixia ginda-keixak eta, baltzak eta gorrixak, onak, e! Keixa klasia fenomenua.

- Keixak orduan ze klase zeren?

- Ginda-keixak, gorrixak, baltzak... Oin be badakaraz. Hor, autopistatik behera aurtan be keixa pillia egon da. Ta horri be esan notsen, [hor dabiz] ta jua zan urtitan be [guardak] eta danak [hor ta bestia]. Ta nik esan najeuan: "Honek, oin bakia eitteko edarrena daneri emotia dok, ba!" Ta esan notsen ta: "Bueno, vosotros también comer. Entre todos vamos a comer antes y..." lez be pillia egon zuan ta aurtan be berdiña. Ta geuk be pillia jan dou. Ta nola horrek bertan dabizela, horrek hor ez ibiltzera txorixak jango zittuen danak. Baiña horrek hor... Eskabadoreen zaratiakin ta kamioien zaratiakin keixak salbau ein dia. [...] be pillia jan dou ta [berok] be bai. Ta iez be bai ta aurtan be bai. Ta danak konforme. Ta hor hiru-lau keixaaittik, "Ez dozue hartuko, geuk bihar dittuu" ta... Badakik ze etortzen dan hortikan. Ta dana da libre ta danak gustora; [berak] be gustora ta geu be gustora. Ta kitto. Ta hurrengo urtitan, ba, seguramentetikan, oin goititik ibili dia, baiña gero buelta haundixa ein biharko da, zeaittik eze hori behian geratzen da, kortau eitten doskue. Hor behian terreno zatixa geratzen jakue, [hektarea] bat pasau ta gero han beste bat, bi. Ta behetik doiaz eittera kamiñua, behetik ein bihar doskue. Baiña lehen zuzen bertatik juaten giñan moduan, oin jua bihar dou han behetik bueltan, zeretik bueltan, ba, ein bihar dozuz bostehun metro, kilometro erdi gehixao igual. Baiña...

- Lauaua geratuko da igual...

- Bai, lauao be ingo dabe, baiña keixatara jua bihar bazara, hamendik horra jua biharrian, Iraolagoitittik jua bihar. Hori aldiori geratuko da, ta gero ikusi ein bihar han behetik, ba, bide ona eitten badabe behetik, ba, konpromisua be egongo da, jentia be ibiliko da pixkat eta bestia, baiña, ba! Baiña geratu, arbolak, edarrak geratu dia. Ta mordua, e! [Beste] hamar arbola edo... Ta gazte-gaztiak, e! Eukiko dittue hamalau bat urte edo, ia ointxe emoteko sasoian darenak. Oin be... Nik neuk oin ez dot ixotzen arbolara, gitxi. Alabian gizona, hor, Osintxukua etortzen da ta [harek bizikletan urtetzen dau] ta harek batzen dittu. Batu ingo nittuke, baiña nekia da. Peligro... ondiokan ez dakat nik hori zerori, baiña nola hankak euki bihar dozuzen postura txarrian ta bestia, geroko egunetan igarri eitten dotsazu. Nekatuta [agertzen] zara. Lanian baiño gehixao nekatzen zara. Ta horretxeaittik, ba, horrek gauzok laga ein dittut pixkat. [Ixo...] batzuk jateko-ta, baiña batzen-ta ordu pare bat arbolan neke haundixa da. Egun guztiko biharra baiño neke haundixaua da, zeaittikan postura txarrian egon bihar zara hankekin ta bestiakin ta... Ta hola.

2. Fruta-arbola ugari etxe inguruan

- **Erref:** SOR-022/006
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:13:15. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Fruta-arbolak. Gaztainak; pikuak; intxaurra. Pikuak lau emanaldi izaten ditu.</p>

Transkripzioa

- Beti euki dozuez orduan frutarbolak?
- Bueno! Hamen aittetatikan dator hau. Hamen aittan denporan be frutatan bostehun bat arbola egongo zian. Aittan denporan be, e? [Haura] sagarrekin [ta reinetak eta] klase ona, gaiñera, e? Ez da hau, nere inbentua ez da dana. Nik gaztaiñak eta beste inbento batzuk etara dittut, baiña... neuk partikular, baiña aittatatik datorrena da gehixena. Hamen, pentsaizu, hor bertan behian ze, ze... pikua dala... Arbola bat, piku arbola bat zeuan, urte baten ehun kilo kendu notsazen. Ehun kilo piku bateri. Zan... hau besteko zabalerakua izango zan. Ta ebai notsan erdiko kukuluori ta gero zabaldu ein zan guardasola moduan. Dana behetik hartzeko moduan, e? Hiru-lau bat zaku simor eruaten notsazen urtero. Ta batzia erreza, behetikan, e, dana hartzen. Gero, pikua be, pikuak be lau bat emonaldi eukitzen dittu. Lau tanda edo emoten dittu pikuak. Hori daka ona. Hamen pikua eta intxorra hor solo honetarako oso onak dia. Hamen ez da horretara dedikau jentia ta... baiña esango neuke, Plaentxiako terrenuetarako pikua ta intxaurra ez diala txarrenak, e? Ta pikua, gaiñera, lehen esan dotena, nola lau emonaldi emoten dittuan, lau tanda edo, ez da [betetzen] batera keixian-ta moduan. Ta hori daka ona, zeaittik eze egualdi txarrenak etortzen badia be, tartian onak jausten dia, ba? Ta lau tandatatik bi, behintzat, salbau eitten dia. Ta urte ona danian, danak salbatzen dia. Ta orduan, ehun kilo kendu notsazanian, danak salbau zian, ba? Orduan, bai, bostehunetik seirehun kilora, bostehun ta piku kilo etara nittuan orduan, e? Pikutan, e? Horrek be danak [eruaten] dittue, hamahiru arbola edo. Gero, okaranak, sagarrak, ta intxorrak be ez dakit zenbat arbola zian, hirurogeta hamar edo ez dakit... Danetikan. Hor [euan] dana arbolia, ta ondiok be... Ondiok be intxaurretan bakarrik, behintzat, kontatzen egon nitzuan ta beste ehun ta hogeta hamar edo badare, behintzat, intxaur-arbolak be. Ta sagarrak be, txiki ta haundi, beste ehun ta berrogeta hamar baiño gehixao. Berrehun be igual hurrao egongo dia. Ta gaztaiñak, ba, gitxi [erosi zittuen]. Bi arbola dare bakarrik. Gaztaiñak [osorik] dare.

3. Gaztainondoen gaitza

- **Erref:** SOR-022/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Gaztainondoen gaitza. Buztinarekin egindako erremedioa.

Transkripzioa

Oin gaztaiñari, ba, hori zerori be etorri jako. Lehendikan hori gaixuori badaka, --hau inportantia da, oin esan bihar dotena-- gaixua, hori, holako kapela hori bat plantatzen jako. Ta nik ez dakit nundikan, nik beti izan dotsat buztiañari fede haundixa. Basarriko... "ercilla" edo ze esaten dotse horrerri, buztiañari? Txokolotia moduan sendo-sendo einda, bestia. Ta harekin aprobak eittia pentsau nabien. Zeaittik horrek ihartu eitten dia. Kasorik eitten ez badotsazue, lehelengo urtian, jeneralian, ihartzen dia, ta bigarrenerako seguru. Ta esan neban: "Mekauen sos, aprobia ein bihar juat

honetxekin". Ta garbittu. Atento egon, ta horixa han agertzen jakuenian, kapela horixori, bueltan, kutxilliakin azala dana kendu, bai? Raspau, ta sasoiz akordatzan bazara, ondiok ez da egoten dana sikatuta. Kendu ez azala, e? Raspau. Raspau, hola, harik eta barruko berdetxua billau artian. Ta gero, holako ontzi batian buztiñakin ein txokolatia moduko sendo-sendo-sendua ta guante zahar bat ipiñi ta harekin eskuakin dana sendatu ta gero papelakin lotu, edo papel periodikuakin lotu. Ta pare bat, hiru bat hillebetian euki ta gero soltau ta gero barriro ein. Ta barriro igual, ba, sei hillebetian edo nahi dozunian laga. Bi arbola hor dare, behintzat, ta lau urte dia. Ta ondiok, osatu ez da eitten total. Baiña hori kanzerra moduan da, ba? Igual-igual da. Hori geixo... oso geixo txarra da. Baiña retenidu bai. Lau urtian, behintzat, bizi da ta ez jakue gehittu. Asieske... Ta halako aliak emoten dittue. Osea, hilda egon bihar ziana, horrek bizirik dare behintzat.

4. Zuhaitzen gaitzak

- **Erref:** SOR-022/008
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Zuhaitzek izaten dituzten gaitzak sendatzeko erremedioa.

Transkripzioa

- Ta gero Plazentziakua be esan notsuen. Plaentxian, estaziñoko zerian, bertan, arbola bat. Ointxe be hantxe egongo dok fijatzen bahaiz. Kendu [...] ipurdian. Akordau nitzuan, --eske arbolan afiziñua jakanak begiratu eitten jotsak arbolari-- ta begiratu najotsan, ta ondiokan, dana janda azal guztia, baiña hiru lekutan-edo, hiru lekutan-edo ondiokan ura pasatzen zeuan. Ta zela dok hori, aiuntamentuko... enpliauen jefiori...

- Baranda.

- Baranda. Hori dok. Esan notsan Barandari, han tokau nitzuan-ta: "Oye, tú, ¿ya te has dado cuenta de lo que pasa ahí, en el culo de ese árbol?", "No. ¿Qué pasa, pues?", "Ven conmigo. Todavía se pueden salvar, ¡eh!". "¿Tú crees?", "Sí. Y además yo te voy a traer el remedio. Mañana mismo además.", esan najotsan. Ein najuan txokolatiori, holako ontzikada bat, hartu gero soka mordo bat eta periodiko osua ta "Tú mañana a esta hora allí, ¿eh?", esan najotsan, "Y si no estás, ya sabes lo que tienes que hacer. Con la buztiña esa tapas a tope y luego con el periódico ese... Te voy a traer todo preparao. Periódico y cuerda y todo.". Halaxen eruan be ein notsazen. Dana tapauta lotuta ipini zaben. "Y le vamos a dejar quieto en seis meses, así.". Gero, ba, sei hillebete pasau zittuan ta "Ven conmigo", esan najotsan. Baiña orduan ordurako be ez zuan etorri. Gaiñera, orduan pasau zuan, autopistan hamen kamiño txarra ta bestia, ta autopistako batek eruan jostan bere todoterrenuakin. Uezaba batek eruan ostan. Harek ikusi juan. Esan najotsan: "A ese ya le dije yo y no ha venido a la cita. ¡Bah! Pero es igual. Ya le diré. En el ayuntamiento ya le diré.". Ta zabaldu genduan ta jo-ta holako mamiña einda. Baiña enormeko mamiña, e! Lehelengo aldiz hori! Holako mamiña. Esan najotsan: "Hau salbau da". "Ihartu... ez zekan sei hillabeteko bizirik, ta salbau da hau.", [esan neban].

Jo, begiratu ta... "Zerekin ein dozu hori?", "Hori? Buztiñakin.". Juan nitzan aiuntamentura ta [harek diar ein zabela, ezin zala], baiña juango zala. Bueno, ba... Aguazillari esan najotsan, hori, Lubarriko haundixori edo: "Oye, dile a ése que allí tiene todo", eruan ein nittuan, ba, barriro buztiñak eta danak, "...que allí tiene todo el trasto. Ya sabe lo que tiene que hacer y que ponga en marcha como antes. Y que está en la vida, ¿eh? El árbol ese ya se ha salvao, ¡eh! Hay no hay vuelta. Eso ya se ha salvao.". Ta esan otsan telefonotik: "Oye, éste dice que el árbol ya se ha salvao", "¿Tú crees?", "Sí, sí, éste dice que sí". "Y tan seguro". Gero, ba, barriro be ipinitta bigarren aldiz ikusi genduan, ta gehixao. Ta oin, berriro ikusi barik dakat. Ez dakit zenbat denporan daon, denporalian dao, kendu ez badotse umiak-edo. Umiekin juaten naizenian gora begiratu bihar dotsat. Baiña seguru egon, praktikamente osatuta egongo da.

5. Zuhaitzen gaitzak

- **Erref:** SOR-022/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Zuhaitzen gaitzak. Sagarrondo batekin egin zituen lehenengo probak.</p>

Transkripzioa

- Lehelengo pruebia hori ein nabena izan zan sagar batekin. Hortxe behian, sagar gazte batekin. Hamabi bat urte edo zekazen. Sagar-gerrixa, ba, holakotxe, haundixa ez, ondiokan gaztia zan ta. Ta nik ez dot pentsatzen holan, beste batek igual pentsauko zaben txarto, nik ez dot pentsatzen nahitta eingo zabenik iñok hori. Kazarin batek edo, itxuria, tirua txorixari edo zozuari botako jotsan, ta zozua jo biharrian, jo-ta egur... gerrixari jo-ta erdixa. Fuera! Eruan zotsan. Ta geratu zan dana bringauta ta gerri guztia dana pelaje barikan. Bai. Haize-bolada haundi bat etorri ezkerro, ixa apurtzeko moduan. Erdixa-edo geratu jakon. Jarri nitzuan pentsatzen gabian, ta esan neban: "Baiña hori zerori... hori, aprobia ein bihar juat, ba, nik zeozekin". Ta buztiñakin akordau jatan. "Pruebia horretxekin ein bihar juat". Ein najuan, buztin pilla bat hartu, periodiko mordo bat... Juan nitzuan. Lehelengo zera hortik etorri zuan. Aizkoria kin horrek harrotutako zerok kendu najotsazen, aizkora zorrotzak. Horrek bringa... dana bringauta jeuan, ba. Ta holako zulua ein najotsan, bete najuan dana buztiñakin, lotu najuan periodikuakin ta zerekin ipiñi najuan ta urtebete baten laga notsan geldi-geldik. Joe! Ixa osatuta! Aiba la ordia! Hau salbau juat! Gero, atzera beteta laga notsan beste urte betian ta kitto. Jo-ta zihero osatu! Total osatu!

- Buztiña da sekretua, orduan?

- Buztiña. Ta hemen... Honek ez juek, honek injenieruak-eta ez juek... Nik esan be ez [juek] eitten nik, e? Horrek, ba, [eron] gauzak ibiltzen jittuek eta. Baiña neria hori dok, e! Ta, gaiñera, matematikua ona, e! "Sin ninguna duda". [Hor], osatuta, Plaentxiako estaziñoko arbolia, hilda egon bihar zana, osatuta... Han beheko urkixa ez, e! Han beheian Santa Anako urki bat... akordau nitzuan harena be! Baiña ez jekan bizirikan. Ya [hari] txiki-

txiki bat zekan, ta esan neban: "Ez noia hankarik sartzera". Horrek be iguala: golpeka ta golpeka, ba, ya azal-punta txiki-txiki bat ekan bakarrik. Ya... Ondio orrixak baekazen, baiña esan najuan: "Ez najoiak hankarik sartzera, bestela ni izango nok, ba, txarra. Horrek ez jakak bizirik. Hau hilda jaok."

6. Errege-sagarrentzat inguru ona

- **Erref:** SOR-022/011
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Fruta-arbolak. Sagarrondoentzat (errege-sagarrentzat) para je ederra. Dena dela, fruta-arbolak ipintzen jakin arren, tratatzen ere jakin behar da.</p>

Transkripzioa

- Eta frutak, frutarbolak-eta, fruta asko emoteko zein da sekretua?
- Bueno, fruta asko.. Nik esango [dostat] neria. Lehen, nik banekixan arbolak ipintzen ta txertatzen ta horrek, baiña ez nekixan tratatzen. Gu ezkondu giñana berrogeta bederatzi urte etorriko dia nobienbrian hogeta zortzixan ta "bodas de oro" daukau datorren urtian. Ta nik sartu nittuan reinetak, hor goiko sakonetan-ta. Eske reinetarako Zabaleko terrenua fenomenua da ona, zeaittik lur baltza dao, hori senduori, hamen. Hor ez, baiña hamen bai. Ta nola nekan ezaututa nun komeni zan reinetia ipintzia, ba, ezkondu ta reineta mordua sartu genduzen. Eztakit hogeta hamar, hogeta hamabost edo berrogei izango zien. Baiña gero, ipintzen jakin ta gero, tratatzen be jakin bihar izaten da. Ta nik nola ez nekixan, laga ein notsen gora juaten. Ta zortzi metrokuak-eta dare, gora. Baiña gero horrek, nola egurrak indarra hartzen daben, denpora asko faten jakue emoten. Harek ekin zian, hamazortzi-hogei urtekin ekin zian emoten. Ba, ale-banakak eta bestia emoten zittuen, baiña gitxi. Oin bai. Oin harek, oin, igual batenbatek berrehun kilo be igual! Haundixak dittuk eta! Oin egurra be ez jakek, ba, ta oin emoten juek kantidadia emoten dabe! Ta gero, behetik hartzeko eskillara [ipiñi] ta bestiak eitten dou, ba, nola dauan para je ona behian ta biguna, ahal dianak hartu. Lehen [gorengo] puntakuak be hartzen nittuan nik sasoi baten, e! Baiña oin ez [juet] bestieri be lagatzen juaten, peligrosua dok eta. Ta behian batzen douz, jausi ahala. Nobienbrian horrek heldu ahala jausi eitten dia, ba, ta goizian juan bi plastikokin edo bi zerekin. Egunero-egunero, egun birik bat juan ta "tak!" eta holaxe, txorixak-eta pixkat [pikatzen] dittue, baiña harek izaten dittuk onenak, e? Atzera geratzen dianak onenak. Hori dudarik be ez! Onenak harek izaten dia. Ta horrek be esan dotsuet, hamazortzi-hogei urte inguru emoten ekitzeko. Oin dakez, ba, esan dotsutezen urtiak. Ezkondu ta hurrengo urtian [...] zian, ba, berrogeta zazpi bat urte-edo eukiko dittue. Ta horrek, ba, bizi luzia eukitzen dabe. Nekezao emoten ekitzen danak bizi luziaua eukitzen dau, nekatu gitxiao einda egoten da ta. Hori hola da, ta hori hola lagako dou.

7. Sagarrondoen inguruko azalpenak

- **Erref:** SOR-022/012
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:30:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Fruta-arbolak. Sagarrondoen inguruko azalpenak. Urte gutxian fruituak ematen ekiteko egin beharrekoak.</p>

Transkripzioa

- Ba, hamen be barrixa, esango dotsut, oingo forman ein dotena. Hor behian-- akordauko ziñazien--, hor bueltan, reinetak dia horrek. Horrek ipini nittuan bost urterako emoten. Bost urterako, baiña ondo emoten, e! Reinetak.

- Ta zelan?

- Zelan? Ba, esango dotsut: podauta, zainttuta. Gorakuak kendu ta guardasoldu pixkat. E? Ta gero oillo-simaurra botatzen notsen. Oillo-simorra, asko barik, lehenengo urtian ta bigarrenian ta hirugarrenian ez hobe, gogorra egoten da ta sustarra ondo hartu artian. Baiña sustarra dezente ondo hartutakuan, bueltan. Ez ipurdian, e? Bueltan, hiru bat metroko bueltan zaku bat zabaltzen badotsazu, frutia emoten ekitzeko ez dao horren modukorikan. Ta gero, lehen esan dotsutena, gorakua kendu. Oin, horrek badauke inkonbeniente bat horrek be --danak harrapatzia gaiztua izaten da--, zeaittik eze gazterik ekitzen bada arbolia emoten asko, nola arramak eukitzen dittuan ondiokaindar barikan, indar gitxikin, ba, pisuakin apurtu eitten dia. En kanbio, horrek bestiokin, berandu [ekitzen] dianak emoten, nola egoten dian gorputza einda, horrek ez dia apurtzen asko euki arren. Ta jua zan urtian be euki zebe, baiña aurtan bildurgarri ta oin bi urte euki zebe bildurgarri. Ta hor --akordauko ziñazien--, makillak... Igual, gero begiratzan badozue akordauko zarie. Ta aurtan be ein biharko juat, zeaittik adarrak mendittik, mendira juanda edo, ahal dan lekuan, urkillak hiru metrokuak, laukuak jirau --edo bikuak-- ta adarrerri ipini ein bihar izaten jakuez behetik gora.

- Eusteko.

- Bestela, jo-ta apurtu, txikittu eitten dia. Ta emoten aguro ekin, baiña horrek be, lehen esan dotena, gero hil be, lehenao hilgo dia. Hori seguru. Horrek ez dittue hartuko bestien moduan berrogeta zortzi urte. Oin dakez horrek hamazortzi bat urte. Hamazazpi, hamazortzi, holako bat dakez.

- Eta hori, sagarrekin edo...?

- Sagarrakin, bai. Sagarrakin hori. Sagarrakin. Ta gero, ostiango gauzekin be, koño, okaranekin ta danekin, ba, gorakua kentzen badotsazu, ta behian errenditzen badozuz, asko lehenao ekitzen dia emoten. Ta gero batzen be, ba, errezaue batzeko be, gora ixo biharrik ez dakazu ta.

- Eta zelan eitten dozu? Erdiko, erdi-erdiko...?

- Jeneralian, erdixa gora juaten da. Erdixak hartzen dau indarra danian gora. Ta haura erdiko zera ebai ta aldamenetako adarrak. Eta gero barrua dana kendu ta gero kapelatu eitten da. Ta gero gorako... Oin pasatzen jata hor, oin be ein biharrian dare horrek, pixkat gorakua kendu biharrian, baiña oin ez dake kuidaorikan. Honek emoten ekinda dare ta horrek emon-emon ingo dabe. Baiña oin be horrerri beheko arbolari, ba, nik sasoia baneka, han, dezente gora doiazeneri hori erdiko gorakuori ebai ingo neukixue. Ta

aldameneko adarretatik --eta esaten dotsat hori alabian gizonari, Jose Antoniori, datorrenian. Baiña harek be kalia eitten dau biharra ta badakizu ze pasatzen dan.-- ta datorren urtian edo ia, esango dotsut nik zeintzu kentzen douzen. Baiña ez dotsa inporta kentzen ez badia be, nahikua baju geratuta dare, ba. Ta gero, hortik aparte, horrek [ondo] emoten dabe, ekinda dare emoten ta. Ez daka hori zerori. Ta gero, igual, gaiñera --igual, gaiñera, pasau leike, ta seguruasko bai--, bizixa luzetu eingo jakue pixkat arrama batzuk lagatzen badotsazue bere [osasunian] juaten gora.

Seguruao bai.

- Eta zelan ebaitzen dozu? Aizkoriakin?

- Ez, ez, ez. Zerretak dare.

- Zerriakin?

-Zerra txikixak dare polittak. Aizkoriakin... aizkoariakin ez da ondo ebaten! Zerreta ederra dakat nik, gaiñera, Frantziatik ekarritako... Zabalegiko Txomin edo, harek jirau ostazen danak. Frantziatik ekarri ostan. Zorrotza? Harekin hartzen dozu ta "ra! ra! ra! ra!" ebaten dozu ta gero horrekin... zela esango dotsut, horrek.. akordauko jata! Horrek zerok, ebatekuak! Ebatekuak! Horrek eta danak ekarri ostazen.

8. Fruta-arbolak txertatzearen inguruko azalpenak

- **Erref:** SOR-022/013
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:30:23. **Bukatu:** 00:34:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Fruta-arbolak noiz eta nola txertatzen diren.

Transkripzioa

- Gero txertaketarakuak be ekarri ostazen begittik txertatzeko piezak be bai. Danak hor dare harek. Begittik be ointxe, agostuan atzenetan, setienbrian lehenengo, hortxe txertatzen dia. Ebaten jakue hola, ta gero behera. Ta kentzen dotsazu begixa zerari ta han sartzen dozu barruan. Gero plastikuakin lotzen dozu. Euri asko eitten badau, peligrua egoten da usteltzeko, zeaittik sartu eitten jako pixkat. Baina normala izaten bada, sagarrak-eta ixa danak hartzen dau. Oin, gaztaiña-ta ez. Gaztaiña ya... gaztaiña gaiztuaua da. Gaztaiñiak peligro gehixao eukitzen dau. Ta holaxe gauza danak.

- Txertau, arbola guztiak txertau leikez gutxi gorabehera?

- Bueno, nik neuk madarixak, gaztaiñak ta sagarrak --nik neuk erabili dittutenak--, okaranak eta... Okarana hobia izaten da, ba, Gabon inguruan, ostian [...berandu samar] txertau. Erresultau hobia emoten dau. Sagarrak ez. Sagarra martixan. Madarixa ta horrek, ba, febrero... ta keixia ta bestia marti inguruan]. Sagarra, hortxe, San Jose aurrian, hor inguruan ixaten da. Horrek gitxi fallatzen dabe. Horrek berrogeittikan batek fallatzen [... ta ya] pena hartzen da [...esateko]. Sagarra erreza da.

- Eta txertau ze eitten da, beti sagarrak sagarran gaiñian, keixia keixian gaiñian, edo...?

- Bueno, batzuk badare esaten dabenak --nik ez dot pruebarik ein-- keixan sagarra etortzen dala ta sagarran keixia be bai ta... Holako gauzak esaten dittue, baiña neri zelan ez jatan okurridu sekula behixa astuakin ipintzerik,

ba... Holako probarik ez dot ein! Oin, arbola baten ein nittun probak -- sagarrian, konparaziño-- lau klase ipini. Lau mento sartu: San Juan sagarra bat; igual Santiago sagarra beste bat; ta reinetia beste bat ta bestia beste bat. Hiru-lau klase. Horrek bai. Horrek probau ein dittut, baiña bertan, sagarran barruan, e? Ostian...

- Eta laurak urten?

- Bai, bai, bai. Hortxe nekazen nik behian. Hiru-lau klase-ta emoten desta. Eruan zittuen aurrian ta kitto, ezta? Baiña... Horrek probok bai. Holakuak ein dittut. Holako gauzak bai.

- Eta zenbat mento sartzen detsazuz normalian?

- Segun. Haundixa bada, lau sartzen jakoz. Ta txiki-txiki-txikixa bada, ba, bat. Ta normala bada, ba, bi sartzen jakoz ondo. Ta gero, gaztaiña forma askotara txertatzen dia ta. Gaztaiña be, ba, konoparaziño, ebaten badozu pixkat... Gaztaiña pixkat sendua izanda hobeto izeten da, pixkat sendua bada. Ta gero horrek berak be, truko bat daka horrek be, ba, mentua gorde keizpian, euzkirik sartzen ez dan lekuan plastiko baten sartuta. Eta arbolia bera ostrotu arren, bentaja izaten da, ba, ura jasota eukitzen dau, ba, azala harrotuta eukitzen dau, ba. Ta egoten bazara zain mentuak arbolatik hartzeko, nola bera be nahikua aurrera etortzen dan, ya harrotzen bajako pujia, ya berandua izaten da, ez dau balio. Ta horretxeaittik, hori ondo eitteko bihar izaten da, ba, gorde, hola, plastiko baten ondo batu haizerik hartu ez deixen, keizpian gorde. Eta gero, ikusten dozunian gaztaiña aurreratu dala dana, ba, orduaintxe txertau, zeaittik harrotuta egoten da ta. Zeaittik azala sikua badaka, ez dau hartzen. Nekez hartzen dau, zeaittik ein bihar dozu operaziñua, konparaziño, hau tolduau baldin bada, hau, ebaixak ein bihar dotsazuz, ba, hola. Gero --han dakaraz erremintak--, harekin puntia zabaldu bihar dozu pixkat. Ta sikua badao, ez da zabaltzen ondo. Ta [...] ez dau hartzen. Baiña orrittuta ta aurreratuta badao, ikutu orduko "tak!" zabaltzen da, ta fresko-fresko egoten da. Ta han hamarretikan bederatzi posiblidade hartzeko ta, bestetik, hamarretik bederatzi ez hartzeko. Entenditzen dozu? Ta horixe. Neuk ein dittutenak dia horrek, e! Ta ondo urten dostenak.

9. Feria eguna

- **Erref:** SOR-022/014
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:34:12. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Bergarako feria, Erramu Zapatuan. Feriara joan beharrean, gaztainondoak txertatzen geratu zen urte batean.</p>

Transkripzioa

- Akordatzen naiz Pazku aurreko ferixakua, zerekua, Bergarako [Pazkuko] ferixia, Erramu Zapatu. Kauen sos! Orduan be, nahi hara juatia be ta udaberri txarra. Aurtengo moduan beti eurixa eitten zaben, beti eurixa. Ta hor behian patata sartzen [...], lau egun-edo ein zittuan onak. Ta gero, ba, zapatua etorri zuan ta Bergarara juateko gogua galanta ta gaztaiñak nekazen gordeta, paketiori, txertatzeko hor goixan. Ta, ba! Ni afizionaua arbolara be, ta esan najuan: "ez najoiak bape Bergarara ta txertau ein

bihar [jittuadaz]". Hamabi-edo txertau nittuan gaztaiñak eta hamaikak-edo hartu, gehixenak hartu. Ta hor badare gaztaiñak kantidadia emoten! Erremu Zapatua [...] sakrifiziuori; hara juan biharrian, txertatzera. Ta hor dare etxaburuan gaztaiña-arbola edarrak. Zenbaittek ez juan eukiko igual, baiña nik ein najuan, e! Ta ez jaukat damurik, e!

- Merezi izan zeban?

- Onbre merezi zabela! Hor, traktorkada gaztaiña emoten dabe horrek urtero! Ta holaxen. Hor gaztaiña arbolak kantidadia dakaraz ipinita. Gero han goixan...

10. Zuhaitzen gaitzak

- **Erref:** SOR-022/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Fruta-arbolak asko zaintzen ditu. Zuhaitzen gaitzak.

Transkripzioa

- Gero han goixan --danak eruatia geiztua izaten dok, ba--, han arbola-artian ta bestia, ta ihartu be ein jataz bat edo bi. Neuk esaten: "Ba! Kasorik be ez!" Ez dakizu? Baiña hamen etxe ingurukuak-eta, neuk manejatzen dittutenak, zain egoten naiz: "taka". Hori gaixuori dexente asko dao ondiok, e? Ta ikusten dotenian [zertzen], "taka" erremedixua ipintzen dotsat eta oin artian, behintzat, bizirik dakaraz, ein dotsetenak hori operaziñuori. Lehen esan dotsutena, han goixan, ba, batzuk ihartu dira. Ba! [Esaten neban]. Gero, gaiñera, geuk ez douz batzen, ta gero bestiak gitxiao batuko jittuek! Ta hamentxe etxe inguruan salbatzen bajittuau onenak, ba... Horrek batu eingo dittue berok be. Ta esaten dotsut, hori gaixu kontuori gitxittu ez da ein, e! Leku askotan atakatzen dau horrek. Oin, ba, askok ez dakala erremedixorik esaten dabe, baiña... Hau inportantia da bestiak [jakitzeko be]. Holako gauza onak neri esatia gustatzen [jata]. Nik daneri esaten [dotset], e, holako gauza benefiziokua dana. Ni hortik ez nok bizi izan sekula. Ni arbolak saltzera... Bai, saltzen najittuan zerian, Itziarko kooperatiban-ta, arbola batzuk, hola, dozena bat edo hoge-edo landarak. Baiña ni hortik ez naiz sekula bizi izan. Ta oin, ba, bat hortik bizi danian, ba, joe! Norberan patentia emon [...] hil artian jo-ta sekretuan eukitzeko, ta deskuidatzen bahaiz, [iñori esan barik hillian gerau...] ta grabiaua haura ondiokan. Ta gauza onak esan barik hiltzia grabia dok, e!

11. Gaitzak sendatzeko erremedioak

- **Erref:** SOR-022/016
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Gaitzak sendatzeko erremedioak sekretuan gordetzearen aurkakoa.

Transkripzioa

- Ta gauza onak esan barik hiltzia grabia dok, e! Esan najotsan nik hori Mugarriko Paulari. Hik ezautuko [zuan]. Juan nitzuan... Ezautuko [zuan], hil zuan Paula, Boskoittiko Paula. Horrek botikia eitten jok horrek ona golpiendako ta.

- Bai, bai, bai- Unguentuak-eta eitten dittuana.

- Ta Plaentxian neri askok eskatzen josten, nik ez neban txikitarik be kobratzen gehixao neretako. Hori [zabald...botilletan], horrek salduko najotsazen kantidadia. Ezta txikitarik be. Hartu ta emon ta [berak] kobratzen [zebana] kobrau ta kitto. Ta batek lau edo eskatu otsazen ta... Domeka goiz baten, ez jakixat zapatua zan, etxera jua nitzuan. Hor, basarrixa txikixa dake einda horrek, lehengua bota ein jotsen, ba, han behian. Han goixan jakek einda etxetxo bat. Ta jua nitzuan zeren billa. Ta, halaxe, barriketan, oingotxe moduan, hamarretakua edo zeoze ipini jostan, gaiñera. Ta esan notsan Paulari: "Hara, Paula, nik negozioko barri, neu be ez naiz negoziantia. Geiñera, andriak be esaten dosta ez dotela balio, biguneixa naizela, ta errezoia eukiko dau seguruasko. Baiña nik gauza bat esango dotsut: zuk hortikan diru mordua etarako dozu, ta normala ikusten dot, ba, daneri ez esatia. Baiña mesede bat eskatzen dotsut, bihotzetik geiñera, ez zaitte hil baten bati erakutsi barik, e?" "Semiak badaiki..." "Bai, semiak badaiki, semiak bai, baiña semia hiltzen danian beste bati ez badotsa esaten, iñok ez dau jakingo, e? Asieske... Behintzat, gitxienaz, lagaizu liburu baten eskribiduta zela ein bihar dan. Gitxienaz. Bestela, kezka piskat eruango dozu beste aldera, e!" Hori zerak ein jua, Eibarko Karralek ein ei zeban hori. Karralek. Ez dakit entzunda zaren zu... Horrek euki bihar zaben asunto inportanteren bat sekretua. Iñori esan barik hil zan haura tipuaura, e! Hori grabia dok, gero, e! Horrek gauza onok sekretuan eruatia... Joe, mutillak! Hori ez, ba! Oin, bera bizi dan artian eustia handik bizi bada be, ba, hori be, ba, normala dok puskat. Ez dakik? Heure [...]

heuk ez badok [defenditzen], bestiak ez juek defenditzen, ta hori nik rekonozitzen juat. Baiña gitxienaz, behintzat, lagaik anotauta gauzak. Hori bai, e! Ta nik horretan sekreturik ez dakat bape. Total...! Nik sekula ez dot euki afiziño haundirik dirurako be! Ta bizi izateko beste... batzuetan hamalau ordu lana einda ta oin lau ordu einda, baiña beti konforme egon naiz dakatenakin ta beti bizi izaten jakin dot. Eta nik, [dakitena], holako gauza onak, esan eitten dittut eta kitto.

12. Frutarboletarako zaletasuna

- **Erref:** SOR-022/017
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:39:10. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Fruta-arboletarako zaletasuna noiztik duen.</p>

Transkripzioa

- Eta gehixen bat arbolekin-eta ibili zara, ez?

- Bai, bai, ni arbolekin gehixen, arbolekin. Ganauekin be bai, baiña ez naiz izan ganau-mutilla sekula be. Basarrixan egoteko, ba, euki ein bihar zenduan, danak bihar zenduzen bizi izateko ta. Baiña nik uste dot, gero etorri jatan neri arbolako hau, berrogeta hamar urtetik gero. Bai, hortik [bittarte] atzera etorri jatan hau afiziño haundixau. Seguruasko, etorri balejata hoge urtekin, hogeta bostekin, mintegixak ipiniko nittuan, seguruasko, ta dedikauko nitzan landarak saltzen. Seguruasko. Ez dakit balioko naberen, e! Errezao [...] igual andriak, zeaittik ni [frankua] naiz, ba, ta gero asko kobratzekua be ez, ta... igual ez neban emongo erresultau onik. Ez neban eukiko halako zer haundirik. Horretarako lehelengo pixkat granujia izan bihar zara pixkat eta hori izaten be ez dou ikesi ta.... Egixa da hori! Eske negoziuan sartzen danak bestian konpasiñua hartzen badau, harek jai jakak. Harek bestiari pixkat nundik kenduko estudixau bihar jok, ta nik hortarakotxe ez balio. Hortarako gutxi balio nik, hortarako gutxi. Oin, nere bizimodu normala eitteko bai. Konparaziño, esnia hainbeste, sagarrak, ba, hainbeste, danak hainbeste, ta gauza fijuak edo, ba, [gutxiao ez bada be], horrek gauzok bai. Baiña negoziuan sartu ezkerro, diferentia izaten da. Mobidu ein bihar zara, plazetara fan ein bihar zara, gastuak be gehixao egoten dia. Gero, batenbatek pagau ez eittia be tokau leike. Ta horrek danak, arrisko danok be hartu bihar dittuzu, ta gero atzenian, gitxika-gitxika, zeuk ez dakizula --nik uste dot, gehixeneri pasatzen jakue--, bastante formal ekin, baiña bastante granujatuta amaittu atzenian. [Igualak ikusi dittuu] negoziantia, e! Gehixenak, e! Bai. Lehelengo bastante formal ekin, baiña gero gitxika-gitxika, batek [...pagau], "Mekauen sos! [horrek be ez jostak], ba... [Hori semia dau], pagauko dau bestiak!". Gero bestiari kargau.

- Ikasi...

- Bai, bai, bai. Batxillerra ikasi negoziokua. Bai, negoziantia hola izaten da jeneralian. Ta dendetan ta [komertzio] edozein lekutan, e? Nik ezautu dittut besterakuak be bat edo bi ta urte gutxi durau dabe, e! Bestien konparaziñuan, dendekin-ta ekin dianak gehixenak frakasau ein dabe. Gero, gaiñera, igertzen badotse, gaiñera, ba, txarrao ondio. Igarri ezkerro... "Ba, pagauko dozu bixar", ta "pagauko dozu etzi" ta "pagauko dozu bestia" ta gero bape pagau ez. Ta gero norberak pagau ein bihar datozenak. Ta fallau dabe, neuk ezautzen dittutenak, batek edo bik fallau dabe oneixak izatiaaittik, e!

13. Bizitzarekiko ikuspegia

- **Erref:** SOR-022/018
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:41:45. **Bukatu:** 00:46:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Baserrietan auzolana. Gari-ebatea. Bizitzarekiko duen ikuspegia.

Transkripzioa

- Lehen basarritarren artian, negoziua baiño gehixao, trukian izango zan dana, ez? Edo auzolanian edo...?

- Lehen bai. Oin, auzolana, nik ez dot ezautu asko auzolana. Bueno, bai, ezautu naben pixkat gari-ebatieta eta. Gari-ebatiak eitten genduzen lau edo bost basarrik, ba, bata bestiari lagunduta. Nola izaten zan prisakua, ta guria be aiñubia, ta nola etortzen zan gerotxuao, bastante geruao, zeaittik eze euzki-begixan astebete aurrerao etortzen da igual garixa ta. Ta hor Iribera-ta batera ta bestera juaten giñan ta gero berak etortzen zian ta bata-bestiari lagunduaz, ba... Akordutzen naiz ni "dieciocho de julio" egun baten hamazortzi lagun ibili giñan gari-ebaten gurian. Ta danok lekaixoka ta. Eske hamen lana esaten dok, lanik gogorrena be [...] hartu ezkeru gauza ona dok! Pentseizu, gari ebaten berua galanta, ta danok lekeixoka ta juerga baten. Makiña bat nahikua diru [dauken] baztarren baten egongo zittuan ernegauta! "Hau dok berua" ta "ezin leikek aguentau" ta. Gu han. Ta gero merienda galanta ein [...] soruan] ta... Eske, nik beti esan juat, personia feliz ixateko gauza txikixetan dao felizidadia, e! Ojo, e! Kontu, hori! Gauza haundi-haundixetan nik ondio ez juat felizidadierik ikusi iñori be. Gauza txikixetan ta holakotxe gauzetan. Nola personia egoten dan, ze esango [...], ba? Bueno, horretarako izan bihar jok asko sakrifikaetakua ta bizimodu gogor samarra eindakua bihar jok, e! Ta harek jakitzen jok holako gauzak apreziatzen. Baiña hortik urtetzen dabenak, horrek, "Txikixak? Ba! Horrek ez jok balio bape!" ta haundira ta haundira juaten dianak, horrek, nik barrez gitxittan ikusten jittuat, e! horrek serixo ikusten jittuat nik askotan, e? Ez dok egoten hor hori umore... armonixako umoriori ez dok egoten, e!

- Eta ze diñozu, lehen basarri giruan-eta bai egoten zan?

- Bai, bai, bai. Bueno...!

- Gari-ebatiak eta...

- Gari-ebaten ta gari-joten ta demaseko juergak, mutil! Juntatzen genduzen gari-joten be igual hamabi lagun. Gero bañau hor alberga zaharrian --hor jeuan alberga zahar bat-- sartu han jo-ta hartu... Dutxarik-eta ez jeuan orduan oingo moduan! Ur hotzetan sartu ta garbittu, edo ur berua zeozekin berotzen bazan, nahastauta edo bestia. Gero leka-patatak eta tomatiaquin ta bestiaquin ta afari demasa jan. Jeneralian leka-patatia izaten zuan. Edarra! Etxeko lekak eta patatia nahi beste. Ta gero tomatiaquin ensaladak eta gauzak eta. Gozau? Ha zuan gozatzia haura! Egixa dok hori! Eske nik bi gauza ikusi ditturaz: haura gozamina ta gaurko hamengo oingo gozamina ez diala bardiñak. Ta gaur ehun bidar hobeto bizi dok jentia! Ta ez dao konforme! Eske ez jakik felizidadia nun dauan. Ez jok [gura].

- Gauza gehixao, baiña...

- Bai, bai, bai. Zihero kanbixau dittuk gauzak, e! Gu asko felizao izan gaittuk, ein douzen [ahal bihar] guztiekin ta pasau [dan]... Baiña guria bizimodu gogorra izan dok, baiña alegría izan dok bestaldetikan. Egixa da hori. Ferixara faten giñanian be barria ein ugari, [bata bestia...] ta... Hori bai, hor epoka baten, [meriendetara] juaten giñan ta beti meriendatzen genduan. Ta gaur ein ezin leikiana eitten genduan, gaiñera. Jaten genduan afari-merienda edarra ta angulak jaten genduzen. Angulak. Bai, orduan izaten zan meriendia bostehun bat pezeta. Nabil esaten oin dala berrogei urteko ipuiñak, edo... Bai, gitxi gorabehera. Berrogei edo hogeta hamarretik gorakuak. Ta angulak. Aurretik ez [jakit], bi plato jango genduzen, bakarrakin basarritarra ez dok geratzen. Aurretik ez [jakit] ze izango zan, okelia edo bestia. Ta zera, bostehun pezeta. Baiña orduko bostehun pezeta dirua izango zuan, e? Gaurko hamar mila pezeta igual, e! Ojo! Bostehun pezeta erre esaten dok, baiña orduan dirua izango zuan, e!

Ta horrek eitten genduazen. Ta hurrengo baitta baten baten, koño, bost ume be bagenkazen ta hurrengo zapata pare bat edo bi edo bestia. "Bueno, gaur ez noia bape ferixara, erosizue zapata pare bat". Horrek be bai, e! Eske familixako gizonak danak ein bihar jittuk. Segun ze epokatan gauzak tokatzen dian. Ez dok izaten bizimodua dana zera, baiña meriendak be mordua ta oso ondo eindakuak gaiñera. Mordua!

- Eta angulak jaten zenduezen, orduan?

- Angulak. Beti, ferixa guztietan. Holako raziño onak gaiñera, e! Badakizu, horrek lurrezko zeretari emoten zebe. Aurretik ez dakit, ba, txuletia edo ze jaten genduan. Segurua bai. Ta gero haura jaten genduan. [Dakit] bostehun bat pezeta izaten [zala], gero [seirehunera zeoze]... karua izaten zan. Ta haintxe. Ta ein eitten genduan. Horrek eitteko dirua eukitzen genduan. Ta gero, ba, lehen esan dotena, batonbaten, urtian baten edo bestetan tokatzen bazan estuasun txiki bat, ba, kendu eitten dok eta, ba, kitto. "No pasa nada". Hor ez daok.

14. Baserrien etorkizuna

- **Erref:** SOR-022/020
- **Iraupena:** 0:06:08. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:53:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Baserrien etorkizuna; ondorengo guztien artean banatu edo maiorazgoa bultzatu. Bizitzarekiko duen ikuspegia.

15. Eskolako urteak

- **Erref:** SOR-022/022
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:58:25. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>10 urte zituela, gerra irten zen. Lau bat urte egin zituen eskolan. Plazentziako maristetan ikasitakoa.</p>

Transkripzioa

- Ta eskolako ipuiñekin sartzen bagara berriro, ba, hamar urtekin gerria etorri zan. Orduan ez zan juaten oingo moduan urte bikin eskolara ta juan nitzan, ba, bost urtetik, bostetik seira edo juango giñan eskolara gu. Ta gero hamarrekin gerria etorri zan. Hamarrekin urten; lau urte eskolan. Baiña maristak orduan erakutsi eitten zebe. Maristak, Plaentxian maristetan ibili giñan ta eskerrak emotekua da, gaiñera --ni egoten naiz pentsatzen, e?--, zenbait lekutan zortzi urtian baiño lau urtian gehixao erakutsi. Formal, e! Gero, errespetua be bai. Tonto-useiñik ez, e? Errespetua be bai, e! Beren orduak eta gauzak. Ta erakutsi be bai. Ta gero,

norbera zelakua dan be ikusi ein bihar da. Ni --neri ez jata gustatzen harrokerixarik kontatzerik, baiña-- eskolako kontuan ni argixa nitzan. Bigarren, hirugarren... Lehelengua, Teruel edo, hor, mediku baten semia. Hari ez zeuan kentzerik. Gero, Jose Luis, alkate izan zana ta bestia. Ta hortxe, lau bat ibiltzen giñan bigarren, hirugarren, laugarren, lutan ibiltzen giñan. Ta nik gauza inportante bat ikasi naben basarrirako: lau regla ondo ikesittakuak. Ta neri balio izan doste. Lau regla ondo ikesittakuak neri nere bizimodurako balio izan doste, zeaittik eze [...] basarrixan egon da mobimiento pixkat. Ta arbolak eta bestia ta nik ez dot ofizinara jua biharrik euki iñori [...] esaten. Nik nere lau reglekin, sekula usau barikan makiñarik eta istorixarikan, neuk "a puño y letra" esaten dana, numeruekin ta bestia. Hamen basua bota zanian be, milla ta hirurehun kubiko edo bestia, jua ahala, kamioiak jua ahala, "da-da-da!", egunian egunekua [...] etaratzen najittuan. Atzenian kuadernua preparauta eruan najuan ta han ez jua iñok eze esan, e! Han juandako moduan pagau [zittuen]. Nik lau regla, bai, ondo ikesittakuak. Ta neretako balio izan dabe.

16. Soldadutza Madrilen

- **Erref:** SOR-022/023
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza Madrilen. Erdara. Inguru berrira egokitzearen garrantzia.</p>

Transkripzioa

Gero, ba, soldaduskan... Gaur beste aldera esango neuke. Gaur soldauskara jua biharrik ez dao espabillatzeko, zeaittik eze gaur zortzi urterako hortik zihar dabil ta, baiña ni soldau jua nitzanian, ondio Donostiara sekula jua barik nenguan, e! Hementxe, Bergara, Eibar, hamentxe inguruan ibiltzen giñan. Ta Donostiara jua nitzanian, anaiak lagundu estan Madridera juateko. Ta gero, aittak lagun bat edo bestia edo, ta hor, tiok [bittartian edo] zeoze einda zekan ta gero han be lagun bat estaziñuan hartzeko. Baiña hillebete be ez zan pasau... Nekan eskola apurra be nola nekan... Orduan Franco-n denporan, badakik, euskeria ebai jua harek eta, ba, erderaz ein bihar zan dana ta [eskola] neukan apurra be, ba, genkan erderaz. Ta gero ekin nitzanian alternatzen, ta jarri nitzanian jentiakin ta zerian, hillebete barru --ez ondo, oin be ez dakit ondo, baiña-- edozeiñekin berba eitteko moduan jarri nitzan ni. Igual karakterra beti euki dot pixkat. Hori bai. Ni kobardia ez naiz sekula izan, e! Oin, ba, hamen pasatzen zana --lehen esan dotena--, biharra ta biharra ta Bergararaiñok, Eibarreraiñok ta erromerixia Maltzagan. Nobixia hor billau. Hor nobixiakin ta bestia, ta beti hamentxe ibiltzen giñan. Ta jentiakin alternau barikan, ez dakik? Ibili barikan. Baiña gero han jarri nitzanian Madriden batakin ta bestiakin lagunak fenomenuak ein najittuan lagunak be. Onak lagunak, e! Lagunak fenomenuak ein najittuan. Ondio esan najotsan, mediku bat edo badakat hor laguna Mendarokua edo, ta orduantxe [etorritta] Madrildikan bat andriakin ta umiakin. [Hantxe] ipuiña

urten jua, ta esan najotsan --Madrikua zan--: "[Joño], Madrid. Conozco mucho Madrid" esan najotsan, "Estuve en la mili. Joe, ya tuve yo unos amigos estupendos en Madrid. ¡Pero estupendos, eh! Yo me até a sus costumbres. Sabía que estaba en Madrid y humilde-humilde. Y era un amigo más. Como ellos allí. Ahora, si me hubiese metido con el terreno de ellos diciendo otra cosa, igual no hubiese sido así, pero en fin."

17. Baserriko gazte asko kanpora gaztelania ikastera

- **Erref:** SOR-023/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Euskara, erdara. Erdaraz, defenditzeko beste, bai. Baserriko mutil asko kanpora joaten ziren erdaraz ikastera.</p>

18. Eskolara joan aurretik esnetara; baserriko bizimodu gogorra

- **Erref:** SOR-023/004
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Eskola kontuak. Maristak mutilentzat, mesedeetako mojak neskentzat. Esnetara jaisten zen lehenengo herrira, eta ondoren eskolara joaten zen. Neguan, elurra zegoenean nola moldatzen ziren. Baserrietako bizimodu gogorra; emakumeen bizimodua. Arto-zuriketa egiten zenean, arrosarioa errezatzeke ohitura. Valentin Berriotxoaren bertsoak.</p>

19. Soraluzeko auzoak eta ermitak

- **Erref:** SOR-023/007
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Soraluzeko auzoak: Irure; San Marzial, Ezoz, San Andres eta San Inazio. Ermitak; auzoetako jaiak. Santa Ageda eta San Estebango ermitak. Santa Ageda ermita, "Zabale" baserrikoa da.</p>

20. Neska-laguntzea; lehengo bizimodua

- **Erref:** SOR-023/010
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neskatan-mutiletan. Izeba batek emandako aholkua. Bizitzarekiko ikuspegia. Lekaioa irteten ziren etxetik neska ikustera joan behar zirenean. Neska-laguntzea.

21. Maltzagako erromeria

- **Erref:** SOR-023/011
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Maltzagako erromeria inguruko handienetakoa zen. Eibar, Elgoibar, Soraluzeko baserriar gehienak bertan elkartzen ziren. San Rafael ermita.

22. Maltzagako erromeria; neska-laguntzea

- **Erref:** SOR-023/013
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Maltzagako benta; erromeria. Bergarako jaiak. Neska-laguntzea. Probadero zaharra.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com